

Hizkuntz borroka munstroa

Joxe Azurmendi munstrogintza emantzipatzailea da. Da modernitatearen zimenduen aurkako sabotaje-lan diziplinatua. Eta da ontzat emandako sasi-egia baztertzailleen desmuntaketa metodikoa. Ez naiz Joxe Azurmendi pertsonaz ari, niretzat ez baitzen inoiz pertsona bat izan guztiz. Ez nuen inoiz ezagutu, ez nuen behin ere hitzaldi baten zuzenean entzun (ikusi, bai, egin dut diferituan Interneteko bideo batean baino gehiagotan). Ez naiz ari Joxe pertsonaz, beraz, Azurmendi izeneko pentsamendu kritikoa egiteko modu jakin eta partikularraz baizik. Pentsatzeko modu bat oinarrizko zapalkuntza-estrukturen aurkako gudu-zelai gisa hartzen duena pentsamendua bera.

Munstrogintza emantzipatzailea, nioen. Izan ere, hurrengoa irakurtzen da Azurmendik idatzitako testuetako batean: «Bere burua norma deklaraturik daukan mundu anormal honetan, izan gaitzezen bada, munstro». Horixe da niretzat, esaldi bakarrera ekarrita, Azurmendi-ren pentsamendu kritikoaren mugimendurik identifikagarriena. Horixe da etengabe ikasi eta erreplikatu nahi diodan egiteko modua.

Hau da, hartu gure gizartea –euskal gizartea– egituratzen duten ideia-bikote hierarkiko horietako bat. Mendebaldeko metafisikaren logika kategorizatzailea jarraitzen duen horietako bat. Modernitatean zehar errepikaren errepikaz mundua modu antagonistikoan eraikitze eta ordenatzeko gaitasuna hartu duena. Mekanika dualista zapaltzaileak naturalizatzen eta betikotzen dituen. Eta, batez ere, euskaldunon aurka mespretxuz etengabe mobilizatu dena. Hartu ideia-bikote horietako bat, hartu baita pikatxoia eta pala ere, eta jarri lanean. Ustiatu iturriak, bisitatu artxiboak, irakurri testu literario, filosofiko, politiko zein mediatikoak. Irakurri arretaz eta zehatz. Eta landu testuak naturala zirudiena desnaturalizatu arte. Utzi agerian zapalkuntzek beharrezkoa duten artifizioa. Erakutsi pentsamendu dualistaren tranpa.

Erakutsi normaren anormaltasuna eta ireki bidea, ez normal eta ezta anormal ere, munstro izateari.

Norma eta anormala bikotea agertzen dira aipatutako esaldian, eta are ezagunagoak dira Azurmendiren lanen izenburuetakoak. Espainolak eta euskaldunak, demokratak eta biolentoak, Orixeren alde eta kontra, edo gizaberearen bakeak eta gerrak. Izenburuez gain, testuetan irakurtzen dira etnikoa eta zibikoa, naturala eta antinaturala edo otsoa eta bihozbera bezalako kontzeptuak. Lanotan den-dena ordenatzen duen pentsamendu dualista zapaltzaile oso bat hain sakonki da zalan-tzan jartzen, bidea egiten zaigula guri den-dena hankaz gora jartzeko.

Den-dena hankaz gora jartzea: horixe da, beraz, tokatzen zaiguna. Iruditzen zait lanik gehiena pentsamendu dualista zalantzan jartze-ari eman ziola Azurmendik. Lan eskerga da. Bada, guri gelditu zai-gu pentsamendu dualista horretatik ihes egiteko zeregina. Gurea da munstro bilakatzeko egitekoa.

Hartu 'Baña zergatik eta zertako euskaldun?' 1967ko artikulua. *Zeruko Argia*-n argitaratu zuen Azurmendik, eta ekarri zituen haserreak (Jakinek bilduta dauka eztabaida osoa webgunean). Euskararik gabe ez zuela euskaldun iraungo azaldu eta euskaldun irauteko arrazoi-az (hau da, euskal hiztun izaten jarraitzeko arrazoi-az) galdetzen zuen. Auzia ez zen euskaldun jaio ala ez; eta ez zen eskubide edo askatasun kontua ere. Artikuluan erantzunik gabe utzi zuen galdera, baina bizi-tza eman zuen erantzuten. Zergatik? Euskaraz eta euskararen alde jar-dutean soilik egin ahalko diegulako kontra hierarkia zapaltzaile orori. Zertarako? Euskarak balio behar digulako zapalkuntza logika dualista guztietatik askatzeko. Horixe da hizkuntz borroka munstro baten al-deko jarduna. Horixe da Azurmendiren lanari tiraka egiten jarraitu behar dugun praktika emantzipatzailea.